



EAE Publikako Irakasleak Planifikazioa jomugan	Lan Legepeko Irakasle eta Hezitzaileak Zertan da hitzarmenaren negoziaketa?	Haurreskolak Partzuergoa Haurreskolak Partzuergoko Lan Hitzarmen berri baten bidean
Irakaskuntza Pribatuak Gatazkari amaiera eman dion akordioa sinatu dugu	Nafarroa Publikako Irakasleak PAI Espainian eraitsi, baina Nafarroan gotortu	UPV/EHU Ordezko irakasleak EHU: prekarizazioaren aurrean duintasunaren aldeko mobilizazioa

03

EDITORIALA

04

GREBA

04

Martxoaren 12an GREBA
EAEko sektore publiko osoan

05

EAE PUBLIKAKO IRAKASLEAK

05

Curridigia eta "21 ikasgai
XXI. menderako" liburua.
EAEko Hezkuntza saila
eta neoliberalismoa

06

Planifikazioa jomugan

08

LAN-LEGEPEKO IRAKASLE
ETA HEZITZAILEAK

08

Zertan da hitzarmenaren
negoziaketa? _ Sektorea lantzen
_ Bitarteko langileen adinagatiko
arreta zuzenaren murrizketa

09

Ordezlagunea. Lan egoera

10

HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

10

Haurreskolak Partzuergoko
matrikulazioa

11

Haurreskolak Partzuergoko
Lan Hitzarmen berri baten bidean

12

IRAKASKUNTZA PRIBATUAK

12

Gatazkari amaiera eman dion
akordioa sinatu dugu

13

Gizarte Ekimeneko
Ikastetxeetako Aurreakordioa

14

Kontziliaziorako baimen berriak

15

NAFARROA PUBLIKAKO
IRAKASLEAK

15

PAI Espainian eraitsi,
baina Nafarroan gotortu

16

UPV/EHU

16

Ordezko irakasleak EHU:
prekarizazioaren aurrean
duintasunaren aldeko
mobilizazioa

18

LAIKOTASUNA

18

Konkordatuak 45 urte bete ditu.
Zama astuna eta itxuraz behin
betikoa

19

LAN OSASUNA

19

Haurdunaldia eta bajak.
Noiz hartu baja? Zergatik
hari eman diote eta niri ez?

20

IDAZKARITZA FEMINISTA

20

Azaroak 30, zaintza sistema publiko
eta kolektiboaren aldeko mugarrria

21

LGTBIQ+

21

Hezkuntzan dago giltza?

22

EILASTASUNA

22

Eilastasuna

24

JENDARTE MUGIMENDUAK

24

Palestinarekin elkartasuna

26

Etxebizitza duinen alde! _
Alemaniako mobilizazioak

27

Pablo Gonzalez, bi urte
epaiketarik gabe eta isolatuta

28

Konponbiderako giltzak _
Ika-ika-ika, hemen dator KORRIKA!

29

Auzo elkarteak elkarlanean
gatazkei eta arrazakeriari
erantzuteko

30

HITZ ETA LAPITZ

Legealdiaren laburpena: borondaterik ez

Euskal Autonomia Erkidegoan hauteskunde autonomikoen atarian gaudenez, legealdiak ekarritakoak eta bereziki Hezkuntza Sail honek egindakoak baloratzea dagokigu. Begi-bistakoa izan da bi elementu nagusitu direla lau urte luze hauetan: konfrontazioa eta elkarrizketa. Gehienetan edukirik gabeko bilera diplomatikoak eta hutsalak izan ditugu; borondate on handia, baina edukirik ez.

Horren adibide argia izan da legealdi honen erdigunean egon den Hezkuntza Lege berria. Hezkuntza publikoaren izenean aritu dira baina finean honen kontra hartu dituzte erabakiak. Lege berri honek soilik balio izan du, berau garatu dutenen hezkuntza politika pribatizatzailea egonkortzeko, titulartasun publikoa eta pribatua berdintzen baititu. Ondorioz, Euskal Eskola Publikoari zor zaion zentraltasuna ukatu zaio.

Euskal Eskola Publikoari iskin egitean, eredu izan beharko liratekeen bertako funtzio publikoko langileen lan baldintzak kazkartzen dira. Hori horrela, lau urte hauetan Sailak ez die gure eskaerei jaramonik egin eta aldebakarrez jokatu du langileen lan baldintzen kalterako; esate baterako, udako kobraketarako edo edoskitze metaturako eskubideak murriztu egin dituzte.

Guk argi dugu bereziki lan zama arintzeko, erretiroa azkartzeko eta erosahalmena hobetzeko neurrien premia dugula, eta horrela helarazi diogu behin eta berriz Sailari askotariko proposamen bitartez. Sailak ordea, gure eskaerei entzungor egin eta bere bideari ekin dio bestelako proposamenekin. Proposamen horien artean ondoko burutazioak genituzke: ikastetxeko presentzialtasuna handitzea, karrera profesionala txertatzea edota oposaketak ordezkoen araudiari lotzea.

Arduragabekeria hauei guztiei gehitu behar zaie gainera, Sailak jakinarazi digula lana amaitzat ematen duela legealdia amaitzean dagoen honetan; beraz, langileen lan baldintzak hor konpon! Gure arduraren jabe, **STEILAS**ek aldiz zuen laguntzarekin batera, langileen eskubide duinen alde borrokatzen jarraituko du, Hezkuntza Sail honek gurekin duen konpromisoa bete arte. ■



Zerbitzu publikoak indartzeko eta soldata eta enplegua HEMEN ADOSTEKO ERAGITEN JARRAITZEKO

GREBA *Martxoaren 12an GREBA* *EAEko sektore publiko osoan*

Urriaren 25ean eta abenduaren 19an egin genituen greba eta mobilizazioak, arrakastatsuak eta eraginkorrak izan ziren, patioa mugitu zuten, eta eragiten jarraitzeko bidea erakutsi ziguten. Zerbitzu publikoak indartzeko adostutako aldarrikapenak gauzatzeko borrokan segida eman behar zitzaiea aurreratu genuen, eta dagoeneko hitzordu berria zehaztu dugu ELA, LAB, CCOO, STEILAS eta ESK sindikatuok: Martxoak 12.

Erronka handiak borroka tinkoa eta dinamika sendoa behar du. Egiten ari garen borrokarekin jendarteak egoeraz jabeagoa da, eta alderdi eta erakundeen diskurtsoa eta jokabidea baldintzatu ditugu.

EAJ eta PSOEren arteko inbestidura akordioak soldata eta enplegua hemen erabaki ahal izateko ate bat ireki zezakeen arren, ez da benetako pausorik eman hori lortzeko ordea. Horren adibide argia da honako hau: Eusko Legebiltzarrak 2024rako onartutako aurrekontuetan, 19. artikulua jasotzen du Madrilek soldatetan eta enpleguaren arloan hartzen dituen erabakiak bete behar direla. Birjartze tasak balizko kentzearen inguruan Madriletik botatakoa iragarpen batean geratu da, eta iragarpen hori gauzatzeko balitz, hemengo eremu ezberdinetako agintarien borondatea baldintzatu beharko dugu, enplegu publikoa deusezten eta pribatizazioak sustatzen jarrai ez dezaten.

Euskal alderdi politikoei ere, beraien botoak Madriletik ezarritako betoak galarazteko eskatu diegun arren, egun beto horiek mantentzen dira. Horregatik, aste gutxi barru landuko diren Estatuko Aurrekontuen Legean beto horiek kentzearen alde egiteko eskatu behar diegu beste behin ere.

Euskal langile publikoak gure lan baldintzak Euskal Herrian erabakitzeko eta zerbitzu publikoak indartzeko, **MARTXOAREN 12an SEKTORE PUBLIKOKO LANGILEOK GREBARA ETA KALERA!!!**

- *Estatutik datozen mugak ez onartu, inposiziorik eta betorik ez!*
- *%10eko soldata igoera orain eta aurreko zorra berreskuratu.*
- *Enplegua sortu eta egonkortu, behin-behinekotasuna %8tik behera.*
- *Publikoa indartu, pribatizaziorik ez, publikifikatzeko planak adostu.*
- *Lan kargak arindu, osasuna bermatu.*
- *Politika feministak, berdintasun-plan erreal eta eraginkorrak adostu.*
- *Administrazioak eta langileak euskaraz, iruzurrik ez.*
- *Jardunaldiaren murrizketa, 32 orduko lan astearen norabidean.*

CURRIDIGIA ETA "21 IKASGAI XXI. MENDERAKO" LIBURUA

EAEko Hezkuntza saila eta neoliberalismoa

EAEko Hezkuntza sailaren Curridigian, A2 maila lortzeko, 1. moduluan aipatzen da espreski Yuval Noah Harariren "21 ikasgai XXI. Menderako" liburua, non literalki "ikerketa ospetsua" bezala aurkezten den. Ikas egoeren markoan abiapuntuen artean XXI. mendeko erronka handiak hartu behar dira eta erreferentziatzat aipatutako liburua aurkezten da.

Liburu horrek gauza interesgarriak ditu, baina tamalgarria da arlo garrantzitsu askotan eta, gainera, barrutiko ideologiaren usaina ez da atsegina. Hasteko, migrazioen gaineko ikuspegia xenofobiatik urrun dago urrun egon baina berarentzat Merkatuak arazoak konpon ditzake, herrialde ba-koitzak onartuko behar ditu pertsona migratuen kopurua lan merkatuaren eskaeren arabera izan beharko zelarik. Gai honetan giza-eskubideei ez zaio ia garrantzirik ematen eta errefuxiatuen errealitatea ez da agertzen.

Idazlearen ustez, jihadismoaren eta terrorismoaren aurrean, estatuak segurtasuna transmititzen duen ingurune bat inplementatu behar du, historia saihestuz eta dagoen gehiegizko informazioa geldiaraziz. Jarrera moralista eta indibidualista da, bakarrik beldurretik askatzea bilatzen duena; ez du irtenbide politiko edo sozialik eskaintzen eta errealitatearen sustrai historikoei, sozialei eta ekonomikoei jaramonik ez die egiten.

Idazlearen arabera, jatorriz historialari militarra dena, Hirugarren Mundu Gerra saihesteko irtenbidearen muina apaltasuna dela dio. Apaltasun hori lortzeko, meditazioa eskaintzen digu, horrela gizabanakoek munduaren ikuspegi argiagoa bereganatuko omen baitugu; azken kapituluak meditazio budistaren onurak saltzen dizkigu, bide pertsonal huts horrek aurre egin behar diegun desafioen konponbidearen giltzarik garrantzitsuetarikoa balitz bezala.

Sare sozialei buruzko kapituluak Facebook du gai nagusi. Horren arazo nagusia ez omen da zergen ordainketa saihesten dituela edo albiste faltsuekin duen harremana (adibidez Donald Trumpen garai-penean lagundu izana edo 2017ko Myanmarren rohingya etniaren aurkako genozidiorako tresna garrantzitsua izana). Bere ustetan, Facebooken

arazo soziala zera da: subjektuak beraien gorputzetatik alienatzen dituela; eta, gainera, irtenbidea Facebookek berak jarduera fisikoa sustatzea litzateke.



Saltzen digun kosmobisioa neoliberalismoaren indibidualismo berekoiarekin koherentea da. Azken batean arazo publikoak pribatizatzen ditu, izaera politikoa eta kolektiboa duten arazoei "irtenbide" indibidualak eskaintzen dizkie. Hori da hezkuntza sailarentzat eredu-garria den "ikerketa ospetsua". "Ospetsua" eta "sakona" sinonimoak ez direla argi dago.

Egia da Hezkuntza Sailak ez duela liburu hau erreferentzia bakartzat hartzen, baina aipagarria da bertan aipamen eskasa dituzten gaiak, argi baitago gobernu honentzat erronka horiek ez direla lehenengo mailakoak. Garrantzi txikia ematen dio aldaketa klimakoari aurre egiteko egin behar diren benetako neurriei, baliabide naturalen agorpenari, ez eta gizadiak ez ezik biosfera osoak dituen ingurumen-erronken multzoari ere (ekozi-dioa, kutsadura atmosfera eta hidrosferan, lurzoruen degradazioa...). Garrantzi eskasa ematen dio zisheteropatriarkatua gainditzeari. Ez dio garrantzirik ematen langileen klase borrokari, gizarte-desberdintasunari ezta gutxiengo baten kapital-metaketak dakarren botere ekonomiko, politiko eta soziala pilaketa esku gutxi batzuetan.

XXI mendeko erronkatzat hartzen dituzte beraien lehentasunak, eta hauek islatzen dituzte Hezkuntza Sistema osoan. Berain lehentasunak, ez giza-diarenak ezta Ama Lurrarenak. ■

Planifikazioa jomugan

2010 urtean CCOO eta UGTk gutxiengoan sinatu zuten lan hitzarmenak 12 urte daramatza iraungita. Lan hitzarmen berri baten bidean, eta greba dinamika handi baten ondoren, 2018 akordio partzial bat sinatu genuen, besteak beste, ordezkapenak lehen egunetik gauzatzea edo aldi baterako bajak ere lehen egunetik %100 kobratzea jasotzen zuena. Akordio horrek Haur Hezkuntzako giza baliabideak handitzen zituen, baita HKI altuko ikastetxeenak ere. Lau urte pasa ondoren, eta jaiotza tasaren jaitsierak lanpostuetan izan ditzakeen kalteak murriztu nahian, 2022ko maiatzean beste akordio partzial bat sinatu genuen. Honek, gelatan ikasleen ratio jaitsiera jasotzen zuen eta lanpostu berrien sorrera (beatarrak, mentoreak, orientatzaileak LHn...).

Goian aipatu moduan, akordio partzial hauek Lan Hitzarmen berri baten bidean sinatutako akordioak dira, orain negoziatzen gabiltzan lan hitzarmena alegia. Baina zertarako behar dugu lanpostuak bermatzen ez dizkigun akordio bat? Lanik gabe, zertarako lan hitzarmena? Jaiotza tasa jaitsiera bortitz honen aurrean, lehendabizi lotu behar ditugunak lanpostuak berak dira. 2022ko akordioan sinatutako ratio jaitsierek eta lanpostu berrien sorrerek lanpostuen galera eten badu ere, ez da nahikoa, lanpostuak gelei loturik baitaude, eta gelak itxiz gero lanpostuak galduko baitira.

Eskola publikoak ez du merkatu logikan jokatzeko, eta ezin du matrikula garaian marketin kanpaina handi bat abitu enpresa pribatu bat izango balitz bezala. Matrikularen gainbehera etengo duen soluzioa ez izateaz gain, ezin du irudi hutsean oinarritutako zerbitzua saldu kontsumitzailearen arreta erakartzeko. Eskola publikoak ez ditu bezeroak, ikasleak baizik. Lanpostuak bermatu nahi izanez gero, geratzen zaigun aukera bakarrenetakoa ikastetxeen planifikazioan eragitea da.

Jakina da itunpeko ikastetxeen gain eskaintza. Badira herriak non itunpeko ikastetxeen eskaintza herriko eskaria oso osorik jasotzeko gai den. Adibidez, Amurrión 24-25 ikasturterako 60 haur daude matrikulatzeko, eta herriko eskaintza 129 ikasposturena da, hauetatik 75 itunpeko ikastetxeena. Hau da, 69 ikaspostuko gain eskaintza egoteaz gain, itunpeko ikastetxeek matrikulatzera doazen


haur guztiak jaso ditzakete. Eta berdina gertatzen da adibidez, Zarautz, Gernika edo Andoainen.

Itunpeko ikastetxeen gain eskaintzak segregazioa ekartzeaz gain, eskola publikoaren matrikula mugatu eta lerroak galtzera bultzatzen du. Gain eskaintza horri muga jarri ezean, publikoaren gainbehera geldi ezina izango da. Indarrean dauden Dekretu eta Aginduek, soilik eskola publikoak bermatzen duen hezkuntza inklusibo, hezkidetzagile, gertuko eta sostengarria jasotzen duten bitartean, garraiatutako ikasleak jasotzen dituzten eta gizarteari inongo ekarpenik egiten ez dien ikastetxe klasistak ituntzen dira.

Ezezaguna egiten bazaigu ere, indarrean dugun 2010ko lan hitzarmenak, 21. artikuluan, Plangintza Batzorde Teknikoaren (PBT) nondik norakoa jasotzen du.

“PBT hartuko da plangintzari buruzko guztia kontsultatzeko, parte hartzeko eta negoziatzeko organotzat. Horren ondorioz, PBT horrek eskumenak izango ditu plangintza-arau orokorretan, eskola-mapan eta haren zonifikazioan, ikastetxe-sarean egiten diren aldaketetan, hezkuntza etapetarako jartzen diren giza baliabideetan, laguntza zerbitzuetan, irakaskuntzak arautzen eta hezkuntza eskaintza osatzen, kidego eta lanpostuen arteko mugimenduetan.”





Urteak dira **STEILAS** Hezkuntza Sailari PBTa biltzeko eskatzen ari dela, baina honek entzungor egin dio eta ulergarria da. Itunpeko ikastetxeekin lerrokatua egonik, Hezkuntza Sailari oso zaila egingen zaio horrelako batzorde bat aurrera eramatea, azken urteetako jarrera pribatizatzailea justifikatzeko heldulekurik ez duelako. Nola justifikatu gain eskaintza? Eta honek sortu duen segregazioa? Nola justifikatu eskola beharrik ez dagoen lekuan itunpeko lerroak planifikatzea? Eta eskola publikorik gabeko herriak? Nola azaldu beraiek idatzi dituzten arauak urratu izana?

Andoaingo ikastetxe publikoa bi lerrokoa da eta 36 ikasle jaso ditzake. Itunpeko ikastetxeek berriz 104, eskaintza guztiaren %74a. Andoain segregazioaren adibide argienetako bat da, eskola publikoa baita jatorri atzerritarreko edo zaugarriak jasotzen dituen ikastetxea. Itunpeko ikastetxeen eskaintza bi lerrotara (50 ikaspostu) mugatuko balitz, Andoainean orotara 86 ikaspostuko eskaintza izango genuke, 2 urteko gelan matrikulatzeko dauden 74 ikasle jasotzeko nahikoa eta soberan. Gain eskaintza ekiditeaz gain, automatikoki segregazioa ere murriztuko litzateke, jatorriz Andoaindarrak diren ikasle kopuru bat eskola publikoan matrikulatuko litzatekeelako.

Hezkuntza Sailaren borondate eza ikusirik, Plangintza Batzorde Teknikoa da, gaur egun, aurreko adibidean jasotzen den desoreka eta gain eskaintza mugatu dezakeen organo bakarra, ikastetxeen

plangintza sindikatuekin negoziatzeko dagoen batzorde bakarra baita. Azken urteetan Hezkuntza Saila oso eroso jardun du planifikazio atalean, jaiotza tasaren goitik beherakoaren aurrean, itunpeko ikastetxeek jaso ditzaketen ikaspostu guztiak planifikatu baititu eskola publikoaren kaltetan.

Gelak galduko ditugu, lerroak desagertuko dira eta azkenean ikastetxeak itxiko dira. Zoritxarrez etorkizuna beltz ikusten da. Ikastetxe publikoko langileek beraien lanpostuak mantentzeko bidean, **STEILAS**etik PBTa eskatzen jarraituko dugu, planifikazio orekatua, ez-diskriminatzailea eta justua aldarrikatzeko eta gaur egun dagoen eskaintza pribatizatzaile hau iraultzeko. Pilota Sailaren Teilatuan dago. ■

STEILASetik PBTa eskatzen jarraituko dugu, planifikazio orekatua, ez-diskriminatzailea eta justua aldarrikatzeko eta gaur egun dagoen eskaintza pribatizatzaile hau iraultzeko. Pilota Sailaren Teilatuan dago.

Zertan da hitzarmenaren negoziaketa?



Administrazioarekin lan-legepekoen lan hitzarmena berritzeko bilerak egiten duela bi urte hasi baginen ere, gure hitzarmenak 20 urte bete ditu 2023ko abenduan. Lotsagarria!

laz ez genuen gaiaren inguruko inongo lanketarik egin. Izan ere, meritu lehiaketak hankaz gora jarri zuen dena. Aurten, berriz, lehendik ezaguna dugun dinamikarekin hasiak gara: administrazioak proposamena helarazten digu eta guk ekarpenak edo aldatketak bidaltzen ditugu.

Abendutik hona, bi bloke landu ditugu. Batetik, 1-22 artikulua eta, bestetik, 23-54 artikulua. Momentuz, lehen blokearen erantzuna jaso dugu (1-22 artikulue-na) eta sailak ez ditu ekarpen asko kontuan hartu. Hartu dituen apurrak, gainera, formazkoak baino ez dira izan. Egia da, baita ere, lehen artikuluek beren lanketa merezi badute ere, 20.artikulutik aurrera has-ten dela benetako saltsa eta ondorengo hilabeteetako onartze eta deuseztatzeek pisu gehiago izango dutela; pisuzko edukiak negoziatuko baitira.

Prozesua bera oso gorabeheratsua izaten ari da. Hasi-ria batean, administrazio zein beste sindikatuen aldetik presa handia nabaritu bagenuen ere, badirudi orain esku-frenua aktibatu dutela. Antza, 20 urte berritu gabe dagoen hitzarmen baten negoziazioa ez da presazko zerbait.

STEILAStik ahalegin guztiak egiten ari gara ahalik eta hitzarmen txukunena lortzeko; sektoreko kolektibo guztiak eta langile guztiak, izan bitarteko zein finko, aintzat hartuko dituen hitzarmen bat, hain zuzen ere. ■



Sektorea lantzen

Abenduaren 15ean lan-legepeko hainbat hezitzaile bildu ginen sektorearen inguruko gaiak jorrazteko.

Hainbat kolektiboetako langileak bildu ginenez, oso interesgarria eta aberasgarria izan zen.

Mila esker zuen parte-hartzeagatik!

Bitarteko langileen adinagatiko arreta zuzenaren murrizketa

Bitarteko langileek eskatu ahal izateko aldeko epaia jaso bagenuen ere, Administrazioak errekurritu egin zuen epai hura. Hau da, Auzitegi Gorenaren ebazpenaren zain geratu behar genuen.

Prozesua asko luza zitekeela aurreikusirik, **STEILAS**tik, epaiaren behin-behineko betearazpena eskatu genuen. Hezkuntza Sailak hatzik mugitzen ez zuela ikusirik, bigarren aldi batez egin behar izan genuen eskaera berbera.

Otsailaren 8an, Hezkuntza Sailburuaren agindu bat jaso genuen, zeinaren bitartez, Langileriaren Kudeaketarako Zuzendariari epaia bete dezala esaten zitzaion. Hau da, Lan-legepeko bitarteko adinagatiko arreta zuzenaren murrizketak ahalbidetzeko.

Orain, eskaerak aurkeztu ahal izateko, Administrazioak prozesua berrabiaratzea baino ez da geratzen. Azkar izan dadin, lanean jarraituko dugu! ■



Ordezlagunea. Lan egoera



Aurtengo ikasturtean hainbatetan jaso dugun kontsulta da hau.

Ofizios plaza bat esleitu zait. Zergatik gertatu da?
Zer egin behar dut?

Ordezlagunea lan-eskaintzak aukeratzeko plataforma da; interesatzen zaizkigun lan-eskaintzak aukeratzeko ditugu eta arratsaldean jakinarazten zaigu zerbait egokitu zaigun ala ez.

Zer gertatzen da lan-eskaintza batek eskatzaile ez duenean?



Sistemak berak ofizios banatzen du. Nola? Bi irizpide jarraitzen ditu: ordezkoen zerrendan **lan egiteko moduan** dauden langileak (1) hartzen ditu eta zerrendan izena eman duen **azkenetik hasita** (2), plaza horiek banatzen ditu.

Beraz, ordezkoen zerrendetan **lan egiteko moduan** banago, ofizios esleitu ahal zait lanpostu bat, eta zenbat eta puntu gutxiago izan, orduan eta aukera gehiago izango ditut hala gertatzeko.

Kontuz zerrendetan izena eman berri duzuenak!

Nola aldatu gure lan egoera?



Sistemak lan-egoera aldaketak ahalbidetzen ditu 9:30etik 13:00etara bitartean. Beraz, tarte horretan gure egoera aldatzeko aukera izango dugu. **Justifikatu gabeko uko egite** egoeran jarriko gara eta 5 laneguneko epea izango dugu beharrezkoa den dokumentazioa bidaltzeko (kontratua, ikasketen matrikula...). Behin dokumentazioa aurkeztuta, Ordezkaritzak telematikoki **justifikatutako uko egitea** egoeran jarriko gaitu.

Lanpostu bat esleitzen zaigunean, hurrengo egunean lanera joan behar dugu, bestela, zerrendetatik kanporatuak izango gara. Eta, ofizios esleitutako lanpostuekin ere, berdin.

Hala ere, badaude egoera batzuk non langileak uko egin diezaiokeen esleitutako lanpostuari. Egoera horietako bat eta gehien errepikatzen dena, ondorengo da:

- Beste leku batean lanean (kontratupean) egotea.

Lanpostu bat esleitu zait eta beste nonbait nago lanean



Zer egin behar dut?

Bi aukera ditugu:

1. Orain arte betetzen ari nintzen kontratua eten eta hurrengo egunean eskolara joan.
2. **Esleipenari uko egin.**

Nola?

Zerbait esleitu zaigula jakin bezain laster, e-mail bat bidaliko dugu ikastetxeko zuzendaritzara (hurrengo egunean ez garela joango jakinaraziz), baita dagokion lurralde ordezkaritzara ere, esleipenari uko egiten diogula jakinaraziz (kontratua atxikituz).

arabaei@euskadi.eus • bizkaiaei@euskadi.eus
eigipuzkoa@euskadi.eus

Hau guztia kontuan izanik eta azken aldiak jasotzen ditugun deiak aintzat harturik, oso garrantzitsua da gure lan egoera zuzena izatea. Izan ere, askotan ofizios esleitzen diren lanpostuak ez dira betetzen eta langileak ez dira ordezkatuak izaten, horrek guztiak dakarrenarekin. ■

Gure ardura ere bada ordezkapenak lehen egunetik bete ahal izatea!



HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO MATRIKULAZIOA

Urtero bezala, **STEILAS**ek bere aldarrikapen nagusienetarikoa bat eraman dio Hezkuntza Sailari azken mahai negoziatzailean: 2024-25 ikasturterako Haurreskolak Partzuergoko izen-emate epea Euskal Eskoletako matrikulazio epe orokorrearekin bateratzea. Zergatik? Sare publiko osorako matrikulazio epe bakarra sortuko litzatekeelako eta ikastetxe pribatu/kontzertatueta 0-2 geletako izen emate epea berdinduko litzatekeelako.

Pisuzko arrazoiak ditugu matrikulazio epeen bateratzea eskatzeko:

→ Euskal Eskola Publikoaren ibilbidea osotasunean bermatu behar da: 0 urtetik 18 urtera arte. Herritar guztiek aukera izan behar dute hezkuntza publikoa, laikoa, feminista, doakoa eta unibertsala jasotzeko, hezkuntza publikoa baita denona eta denontzat den bakarra.

→ 0-2ko zentroyen izen emate epe desberdinak izateak familiak zentro pribatu/itunduetan izena ematera bultzatzen ditu. Eskola pribatu/itunduetan otsaila aldera matrikulatzeko aukera ematen zaien bitartean, Partzuergoko Haurreskolatan maiztera arte atzeratzen bada, familien urduritasunak edota ikaspostua lortzeko beharrak zentro itundu/pribatuetan izena ematera bultzatzen ditu.

→ Zuzendaritza Batzordeak Hezkuntza Publikoko kanpainan Haurreskolak Partzuergoa ez txertatzeak gure zerbitzua ikusezin bihurtzen du, gure matrikulazioa gutxietsiz.

Jaiotza tasa behera doan garai honetan, inoiz baino gehiago zerbitzu publikoak zaindu eta bermatu behar ditugu. Horregatik, **STEILAS** sindikatuan argi daukagu:

**Matrikulazio kanpaina
bateratua orain!**

**Matrikulatu Haurreskolak
Partzuergoan eta
Euskal Eskola Publikoan!**

**MATRIKULATU
ZUEN HAURRAK
HAURRESKOLAK
PARTZUERGOAN!**



Izen ematea urte osoan zabalik
Denona eta denontzat!

HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO LAN HITZARMEN BERRI BATEN BIDEAN

2021ean Haurreskolak Partzuergoaren lan hitzarmenaren lanketa abiatu zen. Hiru urte eta gero, berriro ere gaia mahaigainean daukagu. **STEILAS** sindikatuan argi daukagu negoziazioan edukiak behar ditugula adostasunera iristeko hezitzaile eta kudeaketa langileen lan-baldintzak hobetzeko.

Horregatik, lan hitzarmenaren negoziazio horren baitan, hauek dira **STEILAS**en ezinbesteko eskaerak:

Lanpostuen zerrenda handitu + lanpostuen estrukturalizazioa + kontratazioa + desplazamentuen erabileraren amaiera

- Ikasturte hasiera guztietan hezitzaileen LZan 100 lanpostu hutsik egon.
- Kudeaketako langileen LZan 8 lanpostu gehiago sortu.
- Behar berriei aurre egiteko Lep arteko kontratuak sortu iraila eta abendu bitartean eta, urtarriletik aurrera, lan metaketak.

Ratioak

- Haurreskola bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako ratioak adostu.
- Haurreskola txikietan bi jardun oso momentu oro, baldintzarik gabe.

Ordainsariak

- Erosteke ahalmena berreskuratu.
- Koordinatzaile plusa.

Lan zama arindu

- Lanaldia murriztu: asteko lanaldia 30 ordukoa.
Hezitzaileak: urtean 1260 ordu, beraz, haurreskolak 195 egun zabalik egon.
Kudeaketa langileak: 1335 ordu.
- Koordinaziorako eta prestakuntzarako denbora handitu.
- Ordezlagunea martxan jarri.
- Kudeaketako langileen lan zama arintzeko neurriak txertatu.

Gazte berritze plana

- Errelebo kontratua langile guztientzat.
- Adinagatiko murrizketa handitzea ordezkatua izateko.

Formakuntza berrantolatu eta ordezkoen errealitatera egokitu.

Lan osasuna: gaixotasun profesionalen aitortza.

Lizentzia, baimenak eta eszedentziak eguneratu.

Kudeaketa langileen eta hezitzaileen ordezkoen araudiak.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Haurreskolak Partzuergoko kudeaketa zuzena egitea, haurreskolak eskola-mapan txertatuz, ondoko eskola publikoarekin zerbitzua parekatuz eta koordinatuz eta Euskal Eskola izen emate kanpaina orokorrekin bateratuz. ■

Gatazkari amaiera eman dion akordioa sinatu dugu

STEILASek ZORIONAK eman nahi dizkie Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako sindikatuok bultzatu ditugun manifestazioa, elkarretaratze eta, batez ere, greba deialdiekin bat egin duten langile guztiei. Lortutako akordioa beraien borrokari esker izan da. Uste dugu merezita daukatela lortutako guztia. Beste behin, argi eta garbi geratu da borroka dela Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalek langileen lan baldintzaetan hobekuntzak proposatzeko bide bakarra. Borrokarik gabe ez dago benetako negoziazioa.

Patronalen arduragabekeria salatu behar dugu, ere bai. Ez da bidezkoa 14 greba egun aurrera eraman behar izateak patronalak gatazka luzatzeko estrategiatik aterarazteko. Agerian geratu da **STEILAS**ek eta gainontzeko sindikatuok egindako aldarrikapenak zentzuzkoak eta egingarriak zirela. Patronalek 2019an bukatu zen gatazkan akats berdinak egiten eta langileekiko begirune gutxi adierazten jarraitu izan dute oraingo honetan ere bai. Negoziazioan zehar patronalek adierazi duten jarrera gogor salatzen dugu, izan ere, artifizialki bizirik mantendu duten gatazkek ez dio inori mesederik egiten.

Azkenik, otsailaren 5ko ordu txikietan, patronalen proposamenak **STEILAS**ek eta gainontzeko sindikatuek eskatutako aldarrikapen bloke guztietan edukiak izan zituen. Hortaz, Lan Harremanetarako Kontseiluaren Bilboko egoitzan EAEko Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan greba deialdiarekin amaiatzeko akordioa sinatu genuen **STEILAS**ek, ELAk, CCOOk, UGTk, Kristau Eskolak eta AICE-IZEAk. Lan gatazkari amaiera eman zion akordioak.

Akordioak jasotakoa aztertuz gero, lorpen handia dela ondorioztatzen dugu: KPIa bermatuta 2024a arte %16ko igoyerekin (finantzaketarekin lotu gabe), Lan Hitzarmenean birkokapen araudia txertatuko da, lan zama arintzeko neurriak kolektibo guztientzat, Lanbide Heziketan erregularizazio esanguratsua eta berdintasun planak eta euskara planak gauzatzeko eta arrisku psikosozialen azterketak abian jartzeko betebeharrak ikastetxe guztietan.

Baina goraipatu behar dugu berriro ere akordioa ez dela lortu aparteko negoziazio prozesu bati esker. LHKn izandako negoziazio prozesua Gizarte Ekimeneko langileen borrokan azken urratsa izan da. Eta borroka gogor eta luze honetan **STEILAS**ek beste sindikatuekin elkarlana sustatu du momentu oro borroka eraginkorra izan zedin eta sektore osoari eragiten dion akordioa lortzearen. Eta lortu dugu, bai, grebalariek egindako presioari esker sinatutako akordioak sektoreko langile guztiei eragiten die.

Patronalek amore eman behar izan dute. Gure aldarrikapenak, zilegi eta neurrizkoak, onartu behar izan dituzte azkenik patronalek. Bide hau guztia, ordea, luze bezain gogorra izan da, eta grebalariek erakutsi dituzten adorea, kemena eta batasuna eredugarriak izan dira, benetan. Pozik eta harro egoteko arrazoiak dituzte! **ZORIONAK!** ■

STEILAS quiere dar la enhorabuena a todas las personas trabajadoras que se han sumado a las manifestaciones, concentraciones y, sobre todo, a las convocatorias de huelga que hemos impulsado los sindicatos de los centros de Iniciativa Social.

También tenemos que denunciar la irresponsabilidad de las patronales. No es de recibo tener que llevar adelante 14 días de huelga para sacar a las patronales de la estrategia de alargar el conflicto.

Pero nuestras reivindicaciones, legítimas y ajustadas, han tenido que ser finalmente aceptadas por las patronales. Todo este camino, sin embargo, ha sido tan largo como duro. El coraje, la valentía y la unidad que las y los huelguistas han demostrado durante todo el conflicto han sido realmente ejemplares. ¡Hay motivos para estar contentas/os y orgullosas/os! **ZORIONAK!** ■



Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetako Aurreakordioa

Grebek bultzatuta, patronalen proposamenak, azkenik, **STEILAS**ek eta gainontzeko sindikatuek eskatutako aldarrikapen bloke guztietan edukiak ditu.

Gauzak horrela, **STEILAS**ek greba bukaerako akordioa sinatu du.

Lan zama gutxitu etapa eta irakasle guztientzat:

Eskola ordu bat gutxiago etapa guztietan.

2 Ordu osagarri gehiago lan pertsonalerako.

Irakasleak ez diren tituludunak: 20 orduko murrizketa urteko lanaldian.

Sektore feminizatuetan...

Haur Hezkuntzako 1go zikloan:

- Irakasleak: 20 orduko murrizketa urteko lanaldian.
- TEJI eta languntzaileak: 38 orduko murrizketa urteko lanaldian.

Hezkuntza laguntzako espezialistak:

- 20 orduko lanaldi murrizketa.
- Ordu osagarrietan hobekuntzak: jardun osoan astean 3 ordu eta jardun partzialean 2 ordu.
- Jardun erdia baino gutxiagoko kontratazioak ez dira egingo.

AZPen lanaldiaren murrizketa: urtean 25 ordu gutxiago.

Lanbide Heziketan...

Hitzarmenean ezarritako lanaldia gainditzen duen irakastordu bakoitza, 1,3 ordu ez-presentzialekin konpentsatzea. Igoera horrek ezingo du astean 4 eskola-ordu gainditu.

6 eskola-ordu astean FCT, Goi Mailako eta Dual orokorreko Lanbide Heziketarako, 3 ordu Oinarrizko Lanbide Heziketarako eta 1,5 ordu Lanbide Heziketa Dualeko Erregimen Intentsiborako.

19 ikasletik gorako taldeetan eskolako praktikan bigarren irakaslea bermatuta.

Plantilaren birkokapena lanpostuak bermatzeko:

- Lan Hitzarmenean birkokapen akordioa txertatu.
- Kalte ordain handiagoa birkotzatzen ez denarentzat.

Lansariak:

- KPla bermatuta 2024a arte %16ko igoerarekin.
- DBH I eta DBH II ren soldata ekiparazioa irakasle diplomatuentzat.

Beste lorpen batzuk:

- Berdintasun planak eskola guztietan egingo dira.
- Euskara planak eskola guztietan egingo dira eta langileek guztiek euskara formazioa jasotzeko aukera izango dute.
- Arrisku psikosozialen azterketak eskola guztietan abian jarriko dira.



Kontziliaziorako baimen berriak

Ordaindutako 5 eguneko baimena

Istripu edo gaixotasun larriagatik, ospitaleratzeagatik edo ospitaleratzetik gabeko ebakuntza kirurgikoagatik. 2. mailarainoko ahaideak eta bizikideak barne hartzen ditu.




4 eguneko baimen ordaindua urtean

Ezinbesteko kasuetan, premiazko edo aurreikusi ezin diren familia-arrazoietan. Orduka har daiteke.

Ordaindu gabeko 8 asteko baimena

Gurasoentzat, adingabeak 8 urte bete arte. Modu jarraituan edo etenean har daiteke, eta lanaldi osoan edo partzialean.



Izatezko bikotea

Izatezko bikoteak erregistratzeagatik 15 eguneko baimen ordaindua aitortzen da, ezkontzarekin parektuz.





PAI Espainian eraitsi, baina Nafarroan gotortu

Joan den abenduan, Madrilgo Erkidegoak ozenki iragarri zuen Historia irakasgaia ez dela ingelesez emanen 2024-25 ikasturtetik aurrera, edukien kalitatea jaitsi ez dadin. Izan ere, enborreko irakasgai guztietan gaztelania irakas-hizkuntza gisa berreskuratzeko egitasmoa dute. Murtzian antzeko zerbait gertatzen da; Hezkuntzako kontseilariak matematika ingelesez ez ematea gomendatzen du, eta adierazi du ikastetxeak ez direla behartuta egonen natura-zientziak ingelesez ematera, ikasleei ere arazoak sortzen ahal dizkietelako.

2018az geroztik, Gaztela-Mantxako eta Gaztela eta Leongo eskola asko atera dira gaztelania-ingelesa programa elebidunetik, Madrilan eta Murtzian dauden gabezia berak egiaztatu ondoren. Programatik ikasturte batetik bestera atera daiteke eta beraz, kontraste handia egiten du Nafarroako eskolei ezarritako 9 urteko prozesu nekezarekin.

PPk (baita PSOEek ere) oso ongi zekien zer kalte eragiten zituen programa horrek, baina komeni zitzaaien familiak "berrikuntza" batekin engainatzea. Izan ere, "berrikuntza" horrek, ustez, eliteko ikastetxeetako ingelesaren ikaskuntza langile klasearen eskura jartzen zuen, hezkuntza publikoaren sisteman gertatzen ari ziren murrizketak disimulatuz. Bestalde, ingelesa sartzea amarru ezin hobea zen gaztelaniaz besteko hizkuntzak zituzten lurraldeetan (Balear Uharteetan, Valentzian, Galizian edo Nafarroan, esaterako) haietan murgiltzeko ereduak oztopatzeke.

PPk erabaki du programa elebidunez libratzea, hezkuntza-sistema publikoari ahalik eta kalte handiena egin ondoren eta sinesgarritasun guzia galduta. Jadanik ez ditu programa horiek behar erasotzeko katalanari edo galegoari. Balearretako eta Valentziako PPko eta VOXeko gobernuek katalanaren aurka jo dute, eta ez dute inolako aitzakiarik behar izan hori egiteko. Horrez gain, Espainiako *deep state* delakoak gogor dihardu katalanaren eta euskararen aurka, eta horren erakusgarri dira Kataluniako hizkuntza-murgiltzeari ere eragiten dioten hainbat epai.

Nafarroako kasuan, Yolanda Barcinak argi eta garbi adierazi zuen PAI ezartzeko helburua: euskarazko matrikulazioa geldiaraztea, ingelesa sustatuz. Beste autonomia erkidego batzuetan PAIren gisako programak eraisten ari dira; aldiz, Nafarroan, Barcinaren politiken jarraitzaileek, hau da, PSNk, UPNk, PPk eta VOXek PAI gotortu dute lege baten bidez, irakasleen sasikidego berri bat inposatuta, espezialitate bakoitzean 6 kontratazio zerrenda ezarriz, eta 1992tik kontratazio zerrendetan jasandako apartheid linguistikoa are gehiago larriagotuz. ■

Noiz arte euskarazko irakaskuntza zokoratua Nafarroa Garaian?

PAIk lortu zuen A eredu nabarmen gutxitzea eta D ereduaren hazkundera gelditzea. Matrikulazioaren jaitsierak eta aldaketa demografikoak kolokan jartzen dituzte D ereduaren lorpenak. Euskaltzaleak hein handi batean tontolotu ditu gobernu honen ustezko "aurrerakoitasunak" eta, bitartean, bere horretan diraute UPNren garaiko politika euskarafobikoek. *Aski da!*

Ordezko irakasleak EHU: prekarizazioaren aurrean duintasunaren aldeko mobilizazioa

Aspaldian ez bezalako ikasturte gatazkatsua ari gara bizitzen EHU. Urteotan ez da falta izan mobilizatzeko arrazoirik, baina Unibertsitatearen egitura estamentalak eta urtez urte hedatu den dinamika konpetitibo, meritokratiko eta gero eta indibidualistagoak asko zaildu dute erantzun kolektiboaren antolakuntza.

Lanaldi partzialeko ordezko irakasleen auzia dela eta, une batez behintzat, tendentzia horrekin apurtzea lortu dugu. Horren adierazle garbia urriaren 11ean Unibertsitateko jarduera akademikoa erabat geldiarazi zuen greba izan zen.

Lanaldi partzialeko irakasle interino, bitarteko edo ordezkoen inguruko arazoa ez da oraingotzekoa. Eusko Jaurlaritzak duela hamabost edo hamasei urte, 41/2008 Dekretuarekin finkatu zituen EHUko irakasle lan sariak. Bertan arduraldi partzialeko irakasle irakasle elkartuentzat ezarritako soldatek ez zuten lanaldi osoarekiko proportzionaltasunik gordetzen. Hartara, hiru laurdeneko lanaldirako jardunaldi osokoaren %34eko soldata soldata ezarri zen (egun hileko 840€ gordin inguru), eta lanaldi erdirako, berriz, %23ko soldata (egun, 560€ gordin inguru).

Proportzio eza horren arazoia irakasle elkartuen izaera zen: Unibertsitatetik kanpo lan egiten zuten profesionalak izan behar zuten, beste soldata bat zutenak, alegia, eta Unibertsitatera, hain zuzen, beren ezagutza profesionala erakustera zetozenak.

Arazoa izan zen, ordea, eskala bera aplikatu zitzaizela baita arduraldi partzian kontratatutako bitarteko irakasleei ere, alegia, gaixotasunagatik, kargu akademikoengatik edo beste edozein arrazoirengatik sortutako hutsune partzialak betetzera etortzen ziren irakasleei ere. Auziari aurre egiteko zenbait neurri bultzatu genituen sindikatuok, besteak beste, arduraldi partzialeko ordezkapenak batuz arduraldi osoko bitarteko plazak sortzea ahalbidetuz edota arduraldi osoko plazen ordezkapenak arduraldi osoko bitarteko irakasleekin betetzera behartuz.

Baina hala eta guztiz ere, eta nahiz eta sindikatuok arazoa mugatzeko neurriak ezarri, 41/2008 Dekretuak prekariedade poltsa kroniko bat sortu zuen EHUko irakasleriaren artean, ez duguna urte hauetan ezabatzea lortu. Espainiako Unibertsitateetan horrenbeste hedatu den irakasle elkartu faltsuen hedapenarekin zerikusirik ez bazuen ere, prekariedade hortxe egon da gurean ere.

Unibertsitate Sistemaren Lege Organiko (USLO) berriak, ordea, edo haren inguruan Unibertsitateek eta Gobernuak egindako interpretazioak, arazoa zabaldu eta irakaskuntzaren antolamendua hankaz gora jartzeko arriskua ekarri dute EHUra. Izan ere, ikasturte honetatik aurrera ordezkapen guztiak (bakanteen salbuespenarekin, alegia bete gabe geratutako



plazena), lanaldi osoko irakasleenak izan arren, den-denak lanaldi partzialeko ordezko kontratuekin betetzen hasi baitira. Ondorioz, denbora laburrean asko handitu da arduraldi partzalean kontratatutako ordezko irakasleen kopurua, baina aldi berean, bete gabe geratu dira, halaber, ordezkatu beharreko zenbait klase ordu (arduraldi partzialeko ordezkapenek ez dituzte ordezkatu beharreko lanaldi osoko ordu guztiak betetzen) eta baita lanpostuak ere, lan poltsetako zerrendetan zegoen irakasle askok ez baitu inongo interesik halako baldintza eskasetan inongo etorkizuneko proiektio akademikorik izango ez duten ordezkapenetan lan egin. Honek denak irakaskuntzaren baldintzen kaskartzea ekarri du oro har: baldintza eskasetan lanean ari den arduraldi partzialeko irakasle kopuruaren handitzea, irakasle askoren irakaslanaren handitzea, kontratatutako irakasleek betetzen ez dituzten orduak ematera behartuta, ikastaldeak batzea irakaskuntza bermatu ahal izateko.

Honen aurrean kanpaina sendo bat abiatu zuten ordezko irakasleek, EHUko Prekarioen Koordinadora delako plataforman antolatuta eta sare sozialetan (@EHUPrekarioKoor) eta hedabideetan beren egoera salatzeke mezuzak zabalduz (Ez dugu nahi EHU_n 800 €-tan lan egiten duen irakaslerik! izan da taldearen lema nagusia). Halaber, EHUko sindikatu gehienekin batera, greba orokor arrakastatsua lortu genuen urriaren 11an, Unibertsitate osoa geldiaraztea lortu zuena.

Irekitako auziaren aurrean Errektoretza eta Eusko Jaurlaritzak oso motel ibili dira eta azkenean eman diguten erantzunak ez du auziaren konponbiderik ziurtatzen: lan hitzarmenaren moldaketa baten bidez arduraldi osoko zenbait lanpostu berri sortzea eskaini baitute, baina ordezkoen lan baldintzen inguruan inongo hobekuntzarik proposatu gabe. Eta ordezko irakasleak etorkizunean ere beharrezkoak izango dira eta guk lan baldintza duinetan lan egingo duten ordezko irakasleak izatea nahi dugu. Ezin dugu onartu irakasle prekarioen poltsa horren iraunkortzea.

Ahaztu gabe gainontzeko aldarrikapenak (soldaten igoera, erosahalmenaren berreskurapena eta lan baldintzen hobetzea), ordezko irakasleena EHUko irakasle, ikertzaile, teknikari eta zerbitzu eta administrazioko langile guztiok eragiten digun duintasun auzia da. ■



Konkordatuak 45 urte bete ditu

Zama astuna eta itxuraz behin betikoa

Zer dira orokorrean Konkordatuak? Eliza Katolikoaren eta Estatuaren arteko hitzarmenak dira, bien arteko harremanak arautzeko sortuak. 1953an espainiar estatu frankistak konkordatu berria sinatu zuen, Elizarentzat oso onuragarria zena. Trantsizio garaian berriztu zen, "Akordioak Egoitza Santuarekin" izenpean 1979ko urtarrilean. Beraz, 45. urteurrenean gaude, eta gaur arte aldaketa gutxirekin dirau.



Estatua "akonfesionala" omen da, baina Elizari oparitu dizkion pribilegioak ugariak dira. Konkordatuaren ondorioen artean nabarmendu nahi ditugu, hezkuntzako sindikatua garen heinean, hezkuntzaren etapa gehienetan erlijio katoliko ikasgaia derrigorrean eskaintzera behartzen dituela ikastetxeak. Hori gutxi ez balitz, onesten da erlijioiko ikastaldeak sortzea nahiz eta ikasle kopurua ez heldu beste ikasgaiek bete beharreko gutxienez; ikasle bakarrek gelak egon daitezke, beraz.

Beste ondorio batzuk aipatu daitezke. Espainiar estatuan 14 jaiegun ofizialeatik Konkordatuak gutxienez lau finkatuta ditu, hau da, hainbat jaiegun erlijioso ez dira bakarrik ohituragatik mantentzen, Elizari emandako oparia da, Espainia nazio katolikoa izaten jarraitzen dela onartzeko. Beste ondorio bat artzapezpikutza militarren existentziaren jarraipena da.

Konkordatua berez estatuaren arteko akordioa da, nazioarteko tratatu bat da, Espainiar monarkia eta Vatikanoko teokraziaren artekoa. 1992an eliza ebanjelikoekin, komunitate juduekin eta komunitate musulmanekin sinatu ziren lankidetzak akordioek (beste erlijio ikasgaiak emateko aukera ematen dutenak eskola publikoetan) ez daukate goi-maila hori; berregitea edo desegitea askoz errazagoak dira.

Bere izaera juridikoa dela eta, ondo babestua dago, baina ez da aldaezina, ez

da behin betikoa borondatea badago. Itun lotsagarri hori bertan behera utzi beharko litzateke. Vatikanokoak, bere aldetik, ez ditu betebeharrak bete, ez baitu pausorik eman autofinantzaketan, nahiz eta akordioan espresuki aipatzen den.

Hitzarmen honetaz aparte baditu Eliza Katolikoaren beste hainbat pribilegio. Batzuk aipatzearen, OHZ zergaren salbuespenak, inmatrikulatutako ondare kulturalaren lapurreta ikaragarria, ikastetxe erlijiosoen itunpeketasun amaigabea edo telebista publikoetan meza santuak ematea. Baina mende erdira heldu daitekeen Konkordatua adierazgarriena izan daiteke.

Gizarteak demokratikoak izateko estatuak laikoak izan behar dira. Laikotasunak Eliza eta Estatuaren arteko banaketa eta kontzientzia askatasunaren defentsa ditu oinarritzat. Konkordatuaren desagertzea beharrezko pausua da laikotasunaren bidean. ■

Se han cumplido 45 años de los Acuerdos con la Santa Sede, el Concordato, que, entre otras cosas, obliga a los centros educativos a ofertar la asignatura de Religión Católica en la mayoría de las etapas educativas.

Este Tratado internacional, si bien no es fuente de todos los privilegios de la Iglesia, si es el acuerdo más destacado y uno de los obstáculos más importantes para avanzar en la laicidad, condición necesaria para una sociedad democrática que separe Iglesia y Estado y asegure la libertad de conciencia.



Haurdunaldia eta bajak

Noiz hartu baja? Zergatik hari eman diote eta niri ez?

Haurdunaldia, batez ere lehenengo umearen kasuan, ilusioz eta beldurrez bizitzen dute ama gehienek. Kezka eta ezjakintasun horretan, behin eta berriz errepikatzen den galdera bat egiten dute guztiek: noiz dagokit baja hartzea? Galderak erraza ematen duen arren, erantzun bateraturik ez dago; hiru faktorek barneratzen duten parametroen arabera erabakiko baitu medikuak baja eman ala ez:



1. Amaren berezko ezaugarriak (intrintsekoak)

Adina: zenbat eta urte gehiago izan emakumeak, arrisku egoera handiagoa da.

Aurretiazko gaixotasun kronikoak (asma, hipertentsioa, gaixotasun autoinmuneak...): hauen presentziak ere arriskua emendatzen du.

Agente biologiko hauentzat serologia negatiboa izateak ere arriskua handitzen du: errubeola, elgorria, parotidisa, zoster barizela, B19 parvovirusa eta zitomegalovirusa. Nekazaritza eta abeltzantza munduko lanbide heziketako langileentzat, bruzela, toxoplasma eta Q sukarraren antigorputzak dituzten ere behatu beharko da.



2. Lanpostu motaren ezaugarriak

Hezkuntzako lanpostu guztiei buruz hitz egitea zaila denez, zenbait adibide baino ez ditugu aipatuko: haurdun dagoen emakumea haur hezkuntzako 0-3 urte bitarteko hurrekin lanean baldin badago, tailerrean makineria pisutsuaren manipulazioa eskatzen duten Lanbide Heziketako moduluak ematen, edo portaera arazo larriak dituzten ikasleekin hartu emanean (ZIG gelako irakasle edo hezitzaileak esaterako), arriskuak gora egiten du.

3. Haurdunaldiaren beraren izaera

Haurdunaldiaren astea: aste zehatz batzuk zaugarriagoak dira, esate baterako, lehen hiruhilabetekoak.

Sabelean dagoen ume kopurua: ume kopuruarekin batera arriskuak gora egiten du.

Haurdunaldia ugalketa-tratamendu bidezkoa izan bada. Berez ez luke eraginik izan beharko, baina arriskuaren plusa zenbatzeko kontabilizatzen du.

Aurretik amak abortoak izan baldin baditu.

Odol jarioak baditu emakumeak.

Ondoeza eragiten badio haurdunaldiak: botaka, nekea, bizkarreko mina, edemak, hipotentsioa...



Hortaz, haurdunaldi bakoitza bakarra dela kontuan hartuta, haurdun dagoenak baja hartzeko bi aukera ditu:

- Familia mediku bidez kudeatuz: hau berehalakoa izango da eta mediku azterketetara deitua izan ahal da.
- Mutua bidez kudeatuz: Mutuako medikuak haurdunaldiaren ezaugarriak (Osakidetzako familia medikuaren edo ginekologoaren txosten bidez gehi langileak berak zehaztutako datuekin) eta langilearen lanpostua baloratu ondoren, aldeko txostena ebatzita. Kasu honetan, emakumezkoak ez du bere lanpostura bueltatu beharko umea jaio arte. Haurreskolak Partzuergoan, adibidez, langileak formakuntza saioetan parte hartu ahal izango du. Ordezkoen kasuan, lanpostu berri batekin berriz egin beharko litzateke tramite guztia. Kasu honetan, ez dira azterketa medikuak pasatzen. ■

Azaroak 30, zaintza sistema publiko eta kolektiboaren aldeko mugarrria

Zaintza lana ezinbestekoa da bizi dugun sistema ekonomiko eta sozial honi eusteko. Emakumeok etxeko esparru pribatuan dohainik, aitortzarik eta babes legalik gabe betetzen dugun zaintza lanari esker sistema kapitalista eta patriarkala sostengatzen da.



Lan horren aitortzaren beharra eta lan banaketa sexualaren inguruko salaketa lan ildo historikoak dira feministontzat; lana, enplegua, zaintza... bezalako kontzeptuez asko hitz egin eta idatzi da.

Baina azken hamarkadetan zaintzaren inguruko merkantilizazioa nabarmen handitzearekin batera, COVID-19aren pandemiak agerian utzi zuen bizi dugun krisi ekosozial eta egiturazkoa, zehazki gizartean dauden arrakala sozio-ekonomikoak. Larrialdi egoera hartan hainbat zaintza sare antolatu ziren herri eta auzoetan. Eta haien kideen eta militante feministen eraginez egun dugun Zaintzaren gaineko eztabaida mahaigaineratzen hasi da. Horrela, "Denon Bizitzak Erdigunera" plataformak bultzatutako Herri Akordiora iritsi arte, zeinetara euskal gehiengo sindikala eta hainbat eragile sozial batu garen.

Mugimendu horren mugarririk aipagarriena aurreko azaroaren 30ean Hego Euskal Herrian izan genuen Greba Orokor Feminista izan da, zaintza eskubide unibertsal eta kolektiboa aldarrikatuz. Horretarako ehunka izan dira egindako batzorde eta asanbladak, eta hedabideetan ere gaia atara da. Lanketa horri esker sareak josi dira, hala etxeko langileen eta mugimendu feministaren artean nola sindikatu eta mugimendu feministaren artean. Grebak balio izan digu orain arte isilpean egon diren hainbat errealitate ikustarazteko. Esaterako, etxeko espazio pribatuaren tradizionalki emakumeek egiten duten lana, edo soldatapeko zaintza langileen lan-baldintza prekarioak. Horrekin batera, egoera administratibo irregularrean dauden emakumeen errealitatea (gehienak arrazializatuak) azaleratzeko eta, nola ez, zaintza sektoreak bizi duen pribatizazio basatia salatzeko ere balio izan digu. Administrazio publikoak zaintza zerbitzuen arduradunak badira ere, sistematikoki enpresa pribatuen esku uzten dute zerbitzua; EAEn EAJk (PSEren laguntzaz) eta Nafarroan alderdi neoliberal ultrakontserbadoreek negozio egiten dute zaintza lanekin.

Grebak garbi utzi zuen Zaintza eskubidearen aldeko borroka guztioi dagokigula, ez dela emakumeon gaia, denok garela eragile edota jasotzaile gure bizitzaren momenturen batean ahalmen ekonomikoa izanda edo ez, zaintza ezin da erosahalmenaren menpe egon. Horretarako, batetik, zaintza eskubidea aitortua eta zerbitzu publiko indartsua (hurbila, neurriera egina, herri edo auzoetako sare publikoen esku) behar dugu; eta bestetik, urgentziaz bertako langileen lan baldintzak eta bizitza egoerak hobetu behar ditugu zaintza kultura iraultzearekin batera. Zaintzaren inguruan ezarri zaigun eredu heteropatriarkala, familiaren barruan kokatua eta zaintzaren erromantizazioa kolokan jarritz. ■

Beraz, Azaroak 30eko greba-eguna tranpolin bat izan zen, orain igerileku olinpikoan bidea egiten jarraitu behar dugu.

Hezkuntzan dago giltza?

Zu sexuzale biziosoa zara eta bisexualitatearekin ezkututzen duzu kontua

Emakume denek dute alua

Ez duzu zakil eder bat dastatu zuk, horregatik zara lesbiana!

Sudurra puskatzen digute mutilarekin kalean eskutik emanda goazenean

Gero eta gehiago dira eraso lgtbifobikoak gure jendartean. Gero eta gehiagotan entzuten, irakurtzen eta jasaten ditugu gure kaletan lesbofoboek, transfoboek eta homofoboek gauzatutako erasoak. Honen aurrean bada nolabaiteko erretorika, zera dioena: *hezkuntzak du aldaketarako giltza; hezkuntzan dago gakoa; hezkuntzan eragin behar da.*

STEILAS sindikatuan, hezkuntzako sindikatua garenez, betidanik eutsi diogu erronka honi eta zuzenean sentitzen gara interpelatuak. Hala, hausnarketa eremuak ditugu sindikatuan gaia lantzeko, baita bateko eta besteko organoak esku-hartzeak planteatzeko ere. Hori esanda, ezin ahaztu arazoa estrukturala dela izaki eta estrukturala beharko duela interbentzioak ere. Hortaz, norberak bere esparruan ardurak hartzea ezinbestekoa izango da eraldaketarako. Kontzientzia-hartze prozesu bati ekitea lehen urratsa litzake, ez baita beselako gidalibururik.

Ardura hori ipar, orain eta hemen, **STEILAS** sindikatuak azken grebetan, beste sindikatuekin bat, hezkidetzaren alde borrokatu du. Hezkuntzak bere giltza esanguratsua aktibatu ahal izateko, ordea, baliabideak

behar ditu. Hezkidetzaren figura egonkor honek, lanpostuak sortzeaz gain, erreferente sendoa sortuko luke ikastetxe bakoitzean, bai ikasleentzat, bai familientzat bai eta klaustrorako kideentzat ere. Oro har, ikastetxeko hezkidetzaren figura egonkorra hezkuntza komunitate osoarentzat gakoa da jardun feministek eta hezkidetzailleek lur hartu ahal izateko bitzira errealean, egunerokotasunean.

Goiko proposamen zehatzaz harago, aipaturiko estruktura heteropatriarkalari modu sistemikoan erantzun asmoz eta hala erroa zuzenean irauli asmoz, **STEILAS** sindikatuak baditu ameskeria gozo bezain arantzatsuek. Euskalgintzak borrokari esker lortu moduan irakasle ia guztiok C1 maila izan dezagun hezkuntza publikoan lanean jarduteko, posible litzateke irakasle guztiok hezkidetzaren eta pedagogia feministetan gutxieneko jakintza izan beharra euskal eskola publikoan jarduteko? Edota zergatik *curridigi* moduko formakuntzara derrigortu beharrean, ez dute lehentasun moduan hezkidetzaren inguruko formakuntza? Edota ametsak amets, zergatik ez lortu **IRALE** moduko formatu batean, irakasleok formakuntza jaso dezagun hezkidetzaren eta pedagogia feministetan? ■

Hezkuntzak izan badu, bai, giltzaren zati handi bat.
Horretarako, ordea, baliabideak behar dira eta, jakina,
Hezkuntza Sailaren borondate politiko garbi eta sendoa!

Gu prest gaude horien alde indartsu borrokatzeko!

Gu prest gaude!



Urtarrilean Eilastasuna Asanblada Nazionala egin genuen Donostian. Proiektuek balorazio ona jaso dute oraingo honetan ere, eta berriak martxan jartzeko bizipoza begi bistakoa da. Mundu zabalean egun ditugun proiektuez gain, bi berriri atek zabalduko dizkiegu.

Bertaratutako eilastasunkideek eta lagunek argi azaldu zuten paperez, ikus-entzunezkoekin eta ahoz, zer nolako garrantzia eta onurak dakartzaten txirotutako herrialdeetan elkartasun-hezkuntzako proiektuek ikaskuntza-irakaskuntzako komunitateetan. Genero-ikuspegiari dagokionez, urratsak egiten jarraitzen dugu, gero eta neska gehiago eskolaratzea lortu da.

Koneltum- Escuelita libre Wallmapu-Araucania (Txile)

Kalafquen lakuaren eta Rucapillan sumendiaren inguruetan mapuzungun klaseak jaso dituzte. Horrez gain, kultura maputxearen sentsibilizazioan lan egin da, eta jardunaldiak ere burutu dira. Emakumeek maputxeen komunitatean duen zereginari buruz hausnartzeko, emakumeen arteko elkarrizketa garrantzitsuak sortu ziren.

Gamhariako komunitatea eta Dalit komunitateak (Nepal)

Gamharia-ko ikasleentzat, segurtasunean, maitasunean eta bakean oinarritutako irakaskuntza metodoa bertako herriko errealitatera moldatzeko beharrezko materiala sortu eta espazioaren egokitzapena burutu da. Irakaslearentzako beharrezkoak diren ikastaro eta formakuntza saioak ere eman dira eta ikastetxearen eta udal gobernuaren arteko harremanetan proposamen berriak aurkeztu dira.



Saluganda elkarte (Uganda)

Berdintasuna garatzeko, nesken kirol formakuntza eta hilerokoaren inguruko tailerrak sustatu ditugu.

Gure ohiko eskolentzat ikaskuntza materiala, animalientzako pentsua, orturako lurzailen alokairuak eta errekurso gutxien dituzten ikasleentzako bekak eskaini ditugu.

Nakapinyi eskola berrian oilategia eraiki da, sukalde-solarrak, bizikletak eta josteko makinak erosi dira.



Dunia Musso (Guinea-Bissau)

Proiektu honetan azpimarragarrienak, kalteberatasun-egoeran dauden emakumeak eta nekatoekin (emakumeen genitalen mutilaziotik bizirik atera direnak edota behartutako edo pairatzeko arriskuan dauden ezkontzak) lan handia egin dela. Burututako zenbait lan aipatze arren, emakumeen alfabetatzea, jostentzaren bidez ekintzaile tailerrak besteak beste...

★ Compromiso Por la Mujer – CPM Lambayeque (Peru)

Tailerrak burutu dira gurasoentzako familia indarkeriaz, autoestimua, genero eta sexu-aniztasunaz, elikadura burujabetzaz eta segurtasunaz. Bigarren hezkuntzako 5 beka-akademikoak mantendu dira, eskola materiala eta uniformeak.

Ikasturte honetan, azpimarratzekoa da lehen hezkuntzako neskek aurrerapen handia izan dutela. Neskato batek hiru sari eta aintzatespen jaso ditu matematiketan, komunikazioa eta ortografian, eta beste hiru neskatok errekonozimendua jaso dute marrazketan eta pinturan.



★ Ciudad Berraca, Enlace Social, Coordinadora Marzo (Kolonbia)

Asohelechaes auzoan egin den lanean 25 ume eta nerabek parte hartu dute. Martxoaren 8an emekin Herri Hezkuntzaren defentsan murala egin zen.

Estanislao Zuleta Eskolan UIS (Santanderreko Unibertsitate Industriala) zinema lantegia egin da Delfinaren bizitzaz eta osasungintzako langileriaz, hauek ezkerreko militanteen desagerpenak ekitzeko egindako lanaren inguruan. Horrez gain, erakusketa bat ere antolatu da unibertsitatean. Eskola Feminista bi ere antolatu dira "Herri Feminismoaz" hau indartu eta proposamen politiko moduan bultzatu da. ■

Oraindik ez bazara Eilastasunkide gonbidapena luzatzen dizugu!



Hezkuntza komunitatean ere internazionalismoan tinko!

Palestinarekin **elkartasuna**

ZER DA BDZ?



Ikuspegi orokorra

Boikota, Desinbertsioa eta Zigorrak (BDZ) Palestinako askatasunaren, justiziaren eta berdintasunaren aldeko mugimendua da. Palestinarrek gainerako gizateriaren eskubide berberak dituztela dioen oinarritzko printzipioari eusten dio BDZk.

Israelek Palestinako lurraldea okupatzen eta kolonizatzen du, Israelgo herritar palestinarrek diskriminatzen ditu eta errefuxiatu palestinarrei beren etxeetara itzultzeko eskubidea ukatzen die.

Hegoafrikar apartheidaren aurkako mugimenduan oinarrituta, BDZri deitutakoak Israeli nazioarteko zuzenbidea errespetatu dezan presionatzeko jarduteko eskatzen du.

Gaur egun, sindikatuen, elkarte akademikoen eta mundu osoko elkarten laguntza jasotzen du BDSk.

Abian jarri eta hemezortzi urtera, eragin handia izaten ari da BDS, eta zalantzan jartzen ari da Israelgo apartheidaren eta kolonialismoaren nazioarteko laguntza.

Zer dira Boikota, Desinbertsioa eta Zigorrak?

BOIKOTA Israeli eta Palestinako giza-eskubideen urraketan parte hartzen duten Israelgo eta nazioarteko enpresei babesak kentzean datza, baita Israelgo kirol-, kultura- eta ikasketa-erakundeei ere.

DESINBERTSIO kanpainen bankuei, tokiko kontseiluei, elizei, pentsio-funtsei eta unibertsitatei eskatzen diete Israelgo enpresa guztietako eta eskubide palestinarren urraketan inplikaturako nazioarteko enpresetako inbertsioak kentzeko.

ZIGORREN kanpainen gobernuari presioa egiten diete Israeli erantzukizunak eskatzeko legeko betebeharrak bete dezaten, merkataritza militarra, merkataritza libreko akordioak eta Israel nazioarteko foroetatik kanporatuz, hala nola Nazio Batuetatik eta FIFAtik. ■

Boikot Ekonomikoa

BDZ mugimendua Israelen aurkako boikot ekonomikoa bultzatzen ari da, eta kanpaina eraginkorrek ari da egiten herri palestinarren zapalkean parte hartzen duten konpainien aurka.



Jaitsi Israelen apartheidaren trenetik!

2019ko abuztuan, CAF euskal trenbideen enpresa eta Shapir enpresa eraikitzaile israeldarra buruzituen enpresa partzuergo bat hautatu zuen Israelgo Finantza Ministerioak, okupaturako lurralde palestinarrean lege kanpoko koloniak lotzen dituen tren sarea zabaltzeko. Sare horri Jerusalemgo tren arina (JLR, ingelesez, Jerusalem Light) deitzen zaio. ■



**BOIKOT EKONOMIKOA,
BOIKOT KULTURALA,
BOIKOT AKADEMIKOA,
IKASLE ELKARTASUNA
ETA ELKARTASUN SINDIKALA!**



Palestinaren aldeko mobilizazioak

Israelgo Gobernu sionistak kirola erabiltzen du Palestinan egiten ari den genozidioa zurrizteko. Gaur prentsaurrekoan, **STEILAS**ek BDZAraba taldeari babes adierazi dio otsailaren 1eko Tel Aviveko Maccabiren bisitaren normalizazioari eginiko salaketan eta egun horretan Gasteizen Palestinako edo Hegoafrikako banderak bezalako sinbologia legalik ez zentsuratzearen eskaeran.

Abenduaren 29an, Hego Afrikak -apartheidaren aurkako borrokaren erreferentea- Israelen aurkako salaketa jarri zuen Nazioarteko Justizia Auzitegian, genozidioagatik, horixe baita NBEko justizia erakunderik gorena.



Basakeria hau ezin da gelditu adierazpen hutsalen bidez, aitzitik, ekintza zehatzak behar dira. Israelgo estatuaren inpunitateak ezinbesteko ditu erakundeen konplizitate eta utzikeria, eta bere horretan segituko du azken 75 urteotan bezala, ondoriorik eta zigorrak jasotzen ez duen bitartean. ■

**ESTATU SIONISTA ESTATU GENOZIDA!
PALESTINA ASKATU!
BOIKOT ISRAEL!**




Etxebizitza duinen alde!

Salatzen dugu etxebizitza bat eskuratzeko prestazioen arloan EAJk eta PSEk osatzen duten Jaurlaritzak bultzatutako "murrizketa uholde berria". Gainera, "isilean" hainbat erreforma onartzen ari dira, egoera prekarioan, pobretuen eta zaugarrien dauden pertsonentzat eta bizikidetz-unitateentzat. ■



Alemaniko mobilizazioak

Alemanian 200.000 pertsona baino gehiago kale-ara ziren ultraeskuindarren aurkako manifestazioak burutuz. Alemaniako Alternatiba (AfD) alderdi ultraeskuindarreko kideek bilera sekretuetan parte hartu zuten milioika etorkin herrialdetik kanporatzeko proposamenak eztabaidatzeko. ■



Pablo Gonzalez, bi urte epaiketarik gabe eta isolatuta

2022ko otsailaren 28an, Errusiarentzat espiatzea leporatuta, Pablo González kazetaria Polonian espetxeratu zuten. Bi urte hauetan, egozten zaizkion karguak formalki ez aurkezteaz gain, atxilotuaren oinarrizko eskubideak eta eskubide prozesalak etengabe urratzen ari dira.



Pablok erdi-isolamenduko erregimenean jarraitzen du, egunean 23 orduz giltzaperatuta, kanpoko bistarik gabeko gelaxka batean. Gela horretatik bakarrik atera daiteke egunean ordubete patio batera. Abokatuekin hitz egiten uzten zaion bakoitzean, biluztu, miatu eta eskuburdinak jartzen dizkiote.

Steilas sindikatuak salatu nahi ditu kazetariak bere lanbidean aritze hutsagatik jasaten ari den giza eskubideen urraketa eta babesgabetasuna. Are gehiago Europar Batasuneko herrialde batean gertatzen ari denean eta gainerako gobernuak ezer egiten ez dutenean. Gero eta maizago, Europar Batasuna Giza Eskubideen defendatzaile porrokatua izatetik urrun geratzen ari da. Horrela, EHUko doktoregoko ikasle ohiak lehenbailehen berme prozesal guztiak dituen epaiketa jaso dezala eta bere familiarengandik urrun dagoen kartzela batean bahituta egoteari utz diezaiola exijitzen dugu. Mantendu dezagun babes mezua bizirik:

ASKATASUNA PABLO GONZALEZENTZAT!



Konponbiderako giltzak

Giza-eskubideen alde dauden pertsonak biltzen ditu Sarek, eta euskal preso, iheslari eta deportatu guztien giza-eskubideen alde egiten du lan. **STEILAS**en Sare mugimenduaren izaerarekin bat egin eta bere aldarrikapenak babestu egiten ditugu.



Hala, 2023ko urtarrilean deitutako manifestazioan duintasuna, bizikidetzaz lortzeko itxaropena eta euskal presoek zein haien familiei eragiten dieten giza-eskubideen errespetuaren exigentzia eraman genuen ozen kalera. Aurtengo honetan, aldiz, giltzak hartu ditugu eskuetan: iraganen betikotzen gaituzten minei, gorrotoari eta biolentziari ateak zarratu eta konponbide eta elkarbizitzaren ateak irekitzeko. ■

Ika-ika-ika, hemen dator KORRIKA!



Beste behin ere, Euskal Herri osoa zeharkatuko du euskararen aldeko aldarriak. Izan ere, "Harro Herri" lelopean, 23. Korrika ospatuko da aurtengo udaberrian. Zehazki, martxoaren 14an abiatuko da Irundik eta 24an amaituko da Baionan, 2.500 kilometro baino gehiago eginez.

Euskal Herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko ekimen erraldoia da Korrika, euskararen aldeko kontzientzia suspertzea helburu. Pertsona helduen euskalduntzea eta alfabetatzea zeregina daukan aek-k antolatzen du bi urtean behin, baina herri-mugimendu bihurtu da. Izan ere, herri-mugimendutik sortu zen aek bera ere. Hortaz, herriarena da Korrika, euskararen herriarena. Aurtengo edizioan, Azterketak Euskaraz kolektiboa omendu du, herritar euskaldun gisa dagozkien hizkuntza-eskubideak aldarrikatzeko hautua egiteagatik.

STEILAS sindikatuak Korrika babestu eta parte hartzeko konpromisoa hitzartu du. Euskara erdigunean jarzea ezinbestekotzat jotzen baitugu sindikatuko kideok. Mugi dezagun, beraz, euskararen herria, ingurua mugiarazi arte: Harro herri, eta harro KORRIKAN! ■



Auzo elkarteak elkarlanean gatazkei eta arrazakeriari erantzuteko

Azken hilabeteetan hainbat alditan komunikabideetan agertu da gazte migratzaileek lotarako lonjak okupatzen dituztela, auzokideentzako arazo arriskutsu gisa izendatuta, eta ikuspuntu zigortzaile eta arrazistak elikatuta. Aurreko esaldiak herri eta batez ere hiriburu askotarako balioko luke, baina Gasteizez ari gara. Iragan urriaz geroztik, ordea, auzokideen arteko elkarbizitza arazoei ikuspuntu komunitario batetik heltzeko elkartu dira Arana, Alde Zaharra, Errota eta Judimendi auzoetako auzo elkarteak.

Arazoa ez da auzo batena edo bestearena, ezta Gasteizena ere. Gizarte ereduaren ondorio zuzena delako, eta, ondorioz, toki askotan errepikatzen diren egoerak direlako. Nagusiki gazteez ari da, Euskal Herrira auskalo ze ibilbide gogor eginda heldu direnak, eta erabat babesgabe aurkitzen direnak, laguntzarik, enplegurik, sarerik, aterperik gabe. Asko mugitzen dira: egon daitezke hiru hilabete Iruñean, gero Bilbora joan, beste herrialde batean probatu eta tarte baterako Gasteizera...

Gehienen nahia enplegu bat lortu eta gizartean bizitzea da, baina aukera oso gutxi dute. Hutsik dauden lonjetan sartu behar izaten dira lo egiteko, eta ez soilik inongo baliabiderik ez dutenak. Gure hiri eta herrietan ia ezinezkoa da etxebizitza duin bat alokatzea. Eta bereziki migratzaileen-tzat. Bizi baldintza hauetan gazteetako batzuek gatazkak sortzen dituzte tarteka, beren artean zein gainontzeko auzokideekin.

Gazte hauei leporatzen zaie lonjen inguruko komertzio, kale edo ganbaretan lapurretak egin izana, borrokak izan dituzte haien artean, poliziaren esku hartzeak ugariak dira, tartean batzuk bortizkeria handiarekin eta legez kanpo gazteak lonjetatik kanporatuta.

Horren guztiaren aurrean kezka zabaldu da auzoetan, eta auzokideen jarrerak askotarikoak dira auzokideak askotarikoak baikara. Auzokide batzuk beldur dira, neurri batean ulergarria da gatazkak eta lapurretak egon direlako.

Auzo elkarteek gazteekin harremana elikatzeko ahalegina ere egin dute, auzokideekin bitartekari lanak eginez.

Oinarri gutxi batzuk partekatzen dituzte lau elkarteek. Batetik, argi dute irtenbidea ez dela gazteak nork bere auzotik kanporatzea beste toki batean egoera berdinak errepika daitezen, ezta poliziala ere. Kontrara, elkarbizitza eta komunitatea dituzte ardatz: "Lonjetan daudenak auzokideak dira, hortaz, auzokideen artean konpondu behar ditugu arazoak, erakundeen laguntzarekin". ■



HL

Hitz eta Lapitz



STEILAS sindikatua
@STEILAS_

Gogoratu Otsailaren 7tik 23ra zabalik egongo dela EAEko haur, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoetan matrikulatzeko epea.

#Eskola_Publikoak elkarretaratzeara deitu du #EuskalEskolaPublikoan matrikulatzeko dei eginez

Otsailak 3, 12:00etan, Arriagako eskalieretan!

zaindu maite
dubun hori



IA, DENONTZAT
IL ESKOLA PUBLIKOAK Matrikulatu
PUBLIKOAN!

STEILAS sindikatua
@STEILAS_

300 emakume inguru bildu gara gaur Gasteizen A30eko grebaren inguruan hausnartzeko. Bidea hasi baino ez da egin. Euskal Herriko Mugimendu feminista indartsu dago zaintza eredu publiko baten alde borrokatzeko



STEILAS sindikatua
@STEILAS_

Opus Dei-ko eskolako zuzendariari egindako elkarrizketaren harira, inork pentsatu al du berri honek dakarren zuriketa saiakeran? Sexu abusuengatik auzipetatutako irakasle bat babestu zuen ikastetxe baten alde hain zuzen ere?



STEILAS sindikatua
@STEILAS_

Herritarren eskubideen kaltetan, botere judiziala hizkuntza-politikaren joko arauak aldatzen ari dela salatuko dugu bihar, @kontsekiak eta @BAGERAelkarteak deitutako elkarretaraztean.

Euskaraz bizi nahi dugu eta ez dugu eskubide murrizketarik onartuko! EUSKARAZ BAT!

OLDARRALDIAREN
EUSKARAREKIN
BAT
EUSKARAZ
BAT
AURREAN

ELKARRETARATZEA
URTARRILAK 12
18:30
ALDERDI EDER
DONOSTIA



STEILAS sindikatua
@STEILAS_

Iruñeko Haur Eskolak euskaldunak izan daitezzen aldarrikatu dugu gaurkoan Iruñeko Euskalgintzaren elkarretaraztean. Eman haizea euskarari!!



STEILAS sindikatua
@STEILAS_

Steilas sindikatuko kideak Abendaño ikastola publikoan egon gara, bertan gertatutako eraso LGTBifobia gogor salatzen. Erasorik gabeko eskolak helburu, pedagogia feminista ardatz!!

LGTBifobiaren aurrean erantzuna kolektiboa izango da eta ez dugu horrelako ekintzarik onartuko!



STEILAS sindikatua
@STEILAS_

@AEK_eusleko Lurdes Etxezarreta eta @korrika_aekjko Ane Elordi gurekin bildu ziren pasa den astean. Aurtengoa ere, #Korrika babestu eta parte hartzeko konpromisoa hitzartu dugu. #23Korrika #HarroHerri



STEILAS sindikatua
@STEILAS_

Gaur, abenduaren 3an, Euskararen Egunean, STEILASek euskararen alde eta euskaraz lanean jarraitzeko jarrera irmoa adierazi nahi du. Halaber, euskaraz gutxien dutenei euskarra gehiago izan dezaten baliabide publikoak borrokatzen jarraituko dugu.

#EuskararenEguna #EuskarazBizi



STEILAS sindikatua
@STEILAS_

🇫🇮 @Palestinarekin dinamikak antolatuta, Ordiziako manifestazioan izan gara. Palestinari elkartzasuna adierazi eta mendebaldeko gobernuen, erakundetutako alderdi politikoan eta hainbat enpresen konplizitatea salatuz, batez ere CAF enpresarena.

Sionismoarekin konplizitateker ez !!



STEILAS sindikatua
@STEILAS_

Hezkuntza eta euskalgintzako hainbat eragile batu gara gaur, @kontseiluak deituta. Hezkuntza sistema euskararen normalizazio eta gizarte kohesio gakoetan garatu dadin lanean segitzeko konpromisoa agertu eta #HezkuntzaLegea ikasleak euskalduntzeko aukera galduta dela salatu dugu.



STEILAS sindikatua
@STEILAS_

🇫🇮 Presoen etxerako atea zabalduko duen giltza eskuartean hartuz, Bilboko kaleak bete ditugu! Konponbide eta elkartzizaren ateak parez pare zabaldu nahi ditugulako !! #KonponbiderakoGiltzak @sare_herritarra

Traducir post



STEILAS sindikatua
@STEILAS_

🇫🇮 Gaur GREBA EAeko #AdministrazioPublikoan!

Mobilizazioetan gara dagoeneko. Gogoratu 11:30ean egingo ditugula manifestazioak Bilbo, Donostia eta Gasteizen. Zatozi!

Zerbitzu publikoak indartzeko HEMEN ADOSTU! Lan-baldintzak hobetu!

#A19GREBA



STEILAS sindikatua
@STEILAS_

Steilasetik hezkuntzako langileak zoriondu nahi ditugu eta eskerrak eman nahi dizkiegu atzoko greba feminista babesteagatik!

Guztion artean lortuko dugu egungo zaintza eredia iraultzea!

Gora borroka feminista


#A30GrebaFeministaOrokorra



STEILAS sindikatua
@STEILAS_

STEILASEk bat egiten du gaur arratsaldeko 16:00etan Aliende Salazar eskola publikoan egingo den mobilizazioarekin. Argi utzi nahi dugu ez dugula inongo sexu erasorik onartuko ez kirolean ez inon.

Gora emakumeon borroka eta emakumeon bizitza! Guk sinisten zaitugul!



STEILAS sindikatua
@STEILAS_

Bilbo, Donostia eta Gasteizko kaleak bete ditugu aldarrikapenez.

Zerbitzu publikoak indartzeko, soldata eta enplegua HEMEN ADOSTU! Lan-baldintzak hobetu! #A19greba



6 y 12 DE MARZO HUELGA DE

TODO EL PDI EN LA UPV/EHU

TODO EL PERSONAL UPV/EHU

MARTXOAK M-6 + MARTXOAK M-12

EHUko irakasle eta ikertzaile guztien

EHUko langile guztien

GREBA




EHUn PREKARIZAZIORIK EZ!

Ordezko irakasleentzako soldata duinak
Erosahalmena berreskuratu
Lan-kargak jaitsi
Finantziazioa handitu
Erretiro/gaztetze plana berreskuratu

LAB

steilas

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



www.steilas.eus

Araba

Manuel Iradier 40 • 01005 **Gasteiz**
☎ 945 141 104
araba@steilas.eus

Bizkaia

Jose Maria Eskuza 1, 1. esk. • 48013 **Bilbo**
☎ 944 100 298
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa

Gaztela kalea 16-18, Behea • 20015 **Donostia**
☎ 943 466 000
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa

Joakin Beuntza 4-6, behea • 31014 **Iruñea**
☎ 948 212 355
nafarroa@steilas.eus



Irakaskuntzako aldizkaria